

<b>HERNANI</b>	<b>GOIZUETA</b>	<b>ARANO</b>	<b>EREÑOTZU</b>	<b>ASTIGARRAGA</b>	<b>Hemeroteka</b>
Multimedia	Publizitatea		Bazkide egin	KOMUNITATEA	

albiste//EAJ - PRENTSA OHARRA

## «Inprobisazio hutsa da EH Bilduren Sagardoetxearen proposamena»

Astigarragako EAJk adierazi du, ez dagoela ados Sagardoaren Museoa Fundazioaren lur-eremu pribatuan jartzearekin.

### ASTIGARRAGA

2017/04/22 00:00 Larunbata

EH Bilduren jokabidea kritikatu du Astigarragako EAJk, eta salatu du, «inprobisazioa» dela «EH Bildu oposizioan egiten ari den lanaren ezaugarri nagusia». Horixe adierazi du, EH Bilduk **Sagardoetxea** rentzat egin duen proposamenaren inguruan ere: «inprobisazio hutsa da, Sagardoetxea finkatzeko bota duen proposamena». Eta azaldu du, ez dagoela ados Sagardoaren Museo berria, gaur egun dagoen toki berean eraikitzearekin, Fundazioaren jabetza pribatukoa baita. Gainera, adierazi du «gaiak hausnarketa sakonagoa» merezi duela. Modu berean, EH Bilduri gogorarazi nahi izan dio, herriko bizilagunen gehiengoa «ez datorrela bat» Sagardoetxea hor kokatzearekin: «duela bi legealdi, ondasun truke bat proposatu zion Udalak Fundazioari horretarako, baina kaxkoko bizilagunen ezezkoarekin topatu zen. Herriko parroko eta Fundazioko idazkari zen Mikel Goenagari, ez zitzaion ondo iruditzen **Sagardoetxea** bertan kokatzea, ez datorrelako bat Fundazioak dituen giza helburuekin», azaldu du.

### «Krispazioa sortzea da EH Bilduren helburu bakarra»

Gainera, azaldu du EH Bilduk ez zuela proiektua martxan

gurean.eus



 PDF

**HERNANI**

Apirilak 24

### ESKELAK

#### HERNANI

**Santiago  
Armendariz  
Dominguez**



### Agenda Bateratua

#### ASTIGARRAGA

19:30 Los últimos días de Adelaida García Morales  
**LITERATUR SOLASALDIA**  
Kultur etxea.

jarri gobernuan zegoenean, Andoni Gartzia alkate eta Fundazioko lehendakari zela: «beraz, uste dugu EH Bilduren helburu bakarra dela, gobernuaren, Fundazioaren eta herritarren artean krispazioa sortzea. Berriz ere, udal gobernuaren lana oztopatzeko asmoa dauka EH Bilduk», kritikatu du.

Modu berean, azaleratu nahi izan ditu, EH Bilduk bere proposamenean «konpontzen ez dituen bi gai: batetik, Sagardoetxea Anuskan kokatzeak, mugikortasun arazoak sortuko lituzke, kotxe eta oinezko asko mugitzen direlako. Puntu horretan, Kale Nagusiak maniobra egiteko tarte gutxi dauka; beraz, beharrezkoa izango litzateke aparkaleku bat egitea. Eta bestetik, EH Bilduk planteatzen duen 1.200 metro karratuko Sagardoetxe berria eraikitzea, oso obra konplexua da, eta ez dago ondo planteatua: proiektuaren erredakzioa, lorategia haustea, **Sagardoetxea** eraikitzea, lorategia berriz egitea, Kale Nagusian urbanizazio lanak... EH Bildu oso baikorra izan da diru kalkuluetan (bi milioi euro), eta ez dute proposamenik aurkeztu, Udalak kopuru hori bere gain hartu ahal izateko. Finantzaketa publikoa aipatu dute, baina ez dute proposamena Aldundiarekin edo Jaurlaritzarekin egiaztatu; eta finantzaketa pribatua ez dute aztertu ere egin».


### «Landu gabeko makro proiektuak aurkezten ditu»

EAJk adierazi du, horrek frogatzen duela, EH Bilduk ez dituela beharrak ondo aztertu, eta lanketa sakonagoa behar duela: «landu gabeko eta inprobisatutako makro proiektuak aurkezten ditu, bere deriba politikoa ezkutatu nahian. Guretzat proiektu estrategikoa da Sagardoetxe berria, eta lanketa serioa egingo dugu, aurtengo aurrekontuetan jaso bezala».



Inprimatu

Txiokatu



IRUZKINAK

//Erabiltzaileak

## Puri-Purian

*Apirilaren 8an denok ... (1)*

*'Nahi al duzu ... (5)*

## Gida komertziala



Komertzio bat bilatu

Bilatu

## Iragarki merkeak

*Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)*

**Telefona: 943332894**

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

**Telefona: 616886660**

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet

gui

Marian

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarria bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)



**Sanjurjo  
militari  
gaitzet**



**Gaur**

[Aemet](#) eskaintako datuak

## Azken argazkiak



Korrika Ttikia 2017 Go...



Korrika 2017 Astigarragan



Korrika 2017 Hernanin



Mikro Korrika 2017



Korrika Txikia 2017




Dino Korrika 2017

## Azken bideoak



Azkeneko bideoak, web orrian




Azkeneko bideoak, web orrian




Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...



Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA

URUMEAKO  
**kronika**

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)

[astigarraga@kronika.eus](mailto:astigarraga@kronika.eus)

[urumea@kronika.eus](mailto:urumea@kronika.eus)

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



**DOBERA  
KRONIKA  
BAZKIDEAK**

Legezko oharra